



Etxaburu

etxebizitza

Aldacrak: Trokotxena

Ahokoia: Etxáburu / Trokóttxena

“... la casería rústica titulada Etxaburu... situada en el barrio de San Lorenzo jurisdicción de la Anteiglesia de Berriz, que comprende con su antusano mil setecientos sesenta pies cuadrados de planta solar, la que se compone de piso bajo con su zaguan, cuarto y cuadras, y de piso principal con cocina, tres cuartos y pajar...”
DJE 2/41 or. (1866)



43° 10' 52"

2° 34' 34"

Berriz Iruditan / J.A. Ramos

Bizitza bakarreko baserri arrastoa Bizkaiko su-erroldean topatzen dugu, 1745. urtean, eta bertan Sallobente-Mendibil kofradiaren baitan zegoen baserri bati erreferentzia egiten zaio, hots, *Etxaburu*. Hortik aurrera, forma bera mantendu da dokumentu guztietan. Auzotarren artean, *Etxáburu* edo *Trokóttxena* dira ahoko formarik erabilienak.

Eraberritze sakona jasan duen baserria da, errotik aldatu dena. Azkeneko berrikuntzan hormen tratamenduan desestaltako harria eta luzitutakoa konbinatu dituzte. Horregatik antzeman daitezke etxeak izan dituen handitzeak

eta leihoak zabaltzeko aldi desberdinak ere: batzuk harlanduzkoak, beste batzuk egurrezko dintela daukaten edo zarpiatuak diren bitartean. Etxearen sarreretan ere antzeko diferentziak nabarmentzen dira. Edozelan ere, fatxada nagusia bi isurkiko teilatuak sortzen du, eta oso sinplea zen, gaur egun ganbaran bi leiho luze badiu ere. Atartea aldamenean dauka, eta ondoan, leiho bakarra; lehenengo solairuan bi leiho ditu, beheko baoekin lerrokatuta. XVIII. mendeko baserrien traza gordetzen du oraindik.

toponimia

Izen honek dituen osagaiak argi eta gardenak dira, etxe, hitz konposatu zaharretan etxa bihurtzen zena eta buru, “gain” adierarekin. Euskal fonetikaren lege baten arabera hitz konposatueta bi silaba duten hitzek -a hartzen dute amaieran eta, esaterako, baso eta pago konposatueta basa eta paga bihurtzen dira (basakatua, pagadia). Etxe izenarekin gauza bera gertatzen zen eta etxa-ra aldatu, baina oso izen gardenak denez arrunta da geroago berriro etxe bihurtzea eta, esaterako Elorrioko San Agustin Etxebarria antzina Etxabarria zen.